

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

**Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko deialdiaren oinarri ezpezifikoak, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritakoa eta Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoari dagokiona, Goi Mailako Teknikari klasea, A taldea, A1 azpitaldea. Herrilantako Atalburua.**

Alkatea jaunak 4028/2022 Dekretua eman du, 2022ko abenduaren 6an. Honelaxe dio bertako testuak:

*Lehenengoa:* Herri Lanen Ataleko buruaren plaza bat (1) txanda irekiz hautatzeko deialdia onartzea. Lanpostu hori Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoari dagokio, Goi Mailako Teknikari klasea, A taldea, A1 azpitaldea, 203. kod.

*Bigarrena:* Herri Lanen Ataleko buruaren plaza txanda irekiz eta lehiaketa-sistemaren bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onartzea. Lanpostu hori Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoari dagokio, Goi Mailako Teknikari klasea, A taldea, A1 azpitaldea, 203. kod.

*Hirugarrena:* Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea, bai eta deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ere.

*Laugarrena:* Deialdia onartzen duen dekretuaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Basaurin, 2022ko abenduaren 7an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



**IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO  
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI EZPEZIFIKOAK, 20/2021 LEGEAREN  
6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOIA ETA ADMINISTRAZIO  
BEREZIKO ESKALAKO AZPIESKALA TEKNIKOARI DAGOKIONA, GOI MAILAKO  
TEKNIKARI KLASEA, A TALDEA, A1 AZPITALDEA.HERRILANETAKO ATALBURUA**

**1. Deitutako plazak**

Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoko plaza baten (1) deialdia egiten da, Goi Mailako Teknikari klasea, Herri Lanen Ataleko burua, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

Plaza kopurua	Lotutako lanpostu kopurua	Ezaugarriak (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berriazko Osagarria, betekizun espezifikokoak)
1 KOD 6002	KOD 203 Herri Lanen Ataleko burua	Nahitaezkoa: HE 4. Derrigortasun-data: 2020/10/29 Taldea: A Azpitaldea: A1 Destino Osagarria: 28 Bereiazko Osagarria : 35.734,13 €

*Funtzioak*

- Saileko plana urtero egitea, plana garatzeko beharrezkoak diren ekintzak, helburuak, baliabideak (baliabide ekonomikoak, giza baliabideak, eta baliabide teknikoak) eta adierazleak identifikatuta.
- Saileko baliabideak planifikatzea, kontrolatzea eta ebaluatzea.
- Sailak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren ekintza zuzentzaileak eta baliabideak identifikatzea (Helburuak berrebaluatzea).
- Sailean sortzen diren txostenak, kudeaketa-egintzak, ofizioak, baimenak eta komunikazioak edo sinadura beharrezkoa duten beste edozein dokumentu baimentzea, sinatuta edo ikus-onetsia emanda.
- Saileko Zerbitzuen Gutunak prestatzea eta mantentzea.
- Saileko prozesuen edo espedienteen normalizazioa zehaztea, kontrolatzea eta ebaluatzea.
- Sailean kalitatea ezartzeko eta kontrolatzeko prozesuak kudeatzea.
- Norberaren kargurako langileen lana eta errendimendua bideratzea, koordinatzea, ebaluatzea eta gainbegiratzea, helburuen betetze-maila eta errendimendua egiaztatzea, eta, hala badagokio, ez-betetzearen kausak aztertzea eta dagozkion neurri zuzentzaileak hartzea.
- Arloko buruek Udalari, oro har, esleitzen dizkieten proiektuetan eta batzordeetan parte hartzea.
- Saileko gai ekonomiko-finantzarioak diseinatzea, planifikatzea, kudeatzea, ebaluatzea eta kontrolatzea.
- Saileko programetako proiektuak eta jarduketak zuzentzea, koordinatzea, kontrolatzea eta ebaluatzea.
- Sailaren urteko memoria prestatzea.
- Saileko prestakuntza-proposamena prestatzea.
- Hirugarrenetikiko komunikazio-kanalak ezartzea eta mantentzea, eta zergadunei eta/edo herritarrei arreta ematea; komunikabideen kasuan, Udalbatzak emandako jarraibideei jarraituz jardutea.
- Errekurtsoak eta erreklamazioak ebaztea, Administrazio Orokorreko teknikarien kasuan.
- Batzorde informatiboetan idazkari-lanak egitea, Udalbatzak izendatuz gero.
- Udal-obren zuzendaritza eta proiektuak idaztea.



- Obra-zuzendaritzak eta proiektuak kontrolatzea.
- Obra txikiak antolatzea, kudeatzea eta kontrolatzea.
- Obra publikoa zuzentzea.
- Eraikuntzako eta hirigintza publikoko proiektuak prestatzea.
- Sustapen pribatuko hirigintza-proiektuak gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- Kontratatutako proiektuen gauzapena zuzentzea.
- Informazioa eta aholkuak ematea, eta jarduketak proposatzea.

## **2. Parte hartzeko baldintzak**

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. A1 azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa 23,00 euro da.

2.3. Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, arkitekto-titulua, edo lanbide arautu horretan aritzeko gaitzen duen titulua eskatzen da, Europar Batasuneko arauak ezartzen dutenaren arabera.

## **3. Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak**

3.1. Deialdi honen xede den plazari lotutako lanpostuan, 4. hizkuntza-eskakizuna bete beharko da. 2020/10/29ko derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea eskatzen dute.

Betekizun horiek oinarri orokorren 2. eta 7. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

## **4. Hautaketa-prozesua**

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1.1. Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan puntuazioaren arabera ordenatutako instantzia-kopurua bakarrik baloratuko da.

Lehiaketa ez da baztertzailerik izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien %25eko gutxieneko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretako 9.1 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.1.2. Bigarren zatia, euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailerik hautagaiarentzat. Euskararen 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea izango da proba.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Basauriko Udalarri erregistro horretan egiaztatu dezan.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin beharko da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa).

4 hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeko eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzen diren salbuespenak), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira onartuko.

**5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa**

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimenduen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du (I. eranskina).

5.2. Bigarren zatia gai edo ez-gaitzat joko da.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

**6. Lan-poltsa**

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu-poltsarik sortuko.

**7. Lehentasun-klausula aplikatzea**

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoan, Goi Mailako Teknikari klasea, A taldea, A1 azpitaldea, emakumeen azpiordekaritarik ez dagoelako.

**I. ERANSKINA****MEREZIMENDUEN BAREMOAK**

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

**a) Esperientzia: gehienez 80 puntu****a.1. Esperientzia orokorra**

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario-izaera edo lan-harremana.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

— Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoan (Goi Mailako Teknikari klasea, A taldea, A1 azpitaldea, Herri Lanen Ataleko burua edo funtzionalki antzekoak) lan egindako egun bakoitzeko 0,0274 puntu.

**a.2. Esperientzia espezifiko**

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

— Deialdia egin duen administrazioan Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoan (Goi Mailako Teknikari klasea, A taldea, A1 azpitaldea, Herri Lanen Ataleko burua edo funtzionalki antzekoak) egindako zerbitzuengatik, lan egindako egun bakoitzeko 0,00914 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

**b) Titulazioak, prestakuntza eta informatikako ezagutzak. Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei**

b.1. Deitutako plazara sartzeko eskatzen dena baino goragoko prestakuntza akademikoko maila batean (1) dagokion titulua izateagatik, betiere titulazioak deitutako plazari lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorritz gero: 10 puntu.

— A1: Unibertsitate-masterreko edota doktoregoko titulazioa edo baliokidea (MECES 4 eta 3. mailak).



b.2. Erakunde ofizialek (Herri Administrazioiko Eskolak edo Institutuak, Herri Administrazioak, Unibertsitateak, Hezkuntza Ministerioaren edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sailen mendeko ikastetxeak, Elkargo Profesionalak, Mutualitateak, Fundazioak, Elkarteak, Federazioak) emandako edo homologatutako ikastaroak egiteagatik, ikastaro-ordu bakoitzeko 0,50 puntu, gehienez 20, betiere ikastaroak deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorritz gero.

b.3. Informatikako ezagutzak:

Informatika-ezagutzak baloratuko dira, 20 puntu gehienez, eta 5 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Oinarrizko Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.

Moduluak gainditu izana IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren bertsio ezberdinak egiaztatzen badira, horietako bat bakarrik baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenak oinarrizko maila egiaztatutzat joko dira.